

ANALISIA ETA IRUZKINA

EUROPAR BATASUNeko JUSTIZIA AUZITEGIAREN 2022-12-22ko EPAIARENA (JAren C-392-21 auzia INSPECTORATUL GENERAL PENTRU IMIGRARIren aurka)

LABURPEN EXEKUTIBOA ETA ONDORIOAK

- a. Iruzkinduko den Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2022-12-22ko epaiak (C-392-21 auzia, Justizia Auzitegi Nagusia vs *Inspectoratul General Pentru Imigrari*) 90/270 Zuzentarauaren 9.3 artikulua interpretatzen du (zeinaren Espainiako zuzenbiderako zuzeneko transposizioa apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuaren 4.3 artikulua baita, bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin lan egiteari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa; 1997-04-23ko BOEn argitaratua). Izan ere, Errumaniako langile batek, bistaratze-pantailarekin lan egiten duena eta betaurreko graduatuak erabiltzeko beharra sortzen dioten ikusmen-afekzioak dituen bera, betaurreko graduatuak erostearen kostua itzultzeko eskatu dio enplegatzailari, uste baitu Zuzentarauaren aipatutako 9.3 artikuluan aipatzen diren gailu zuzentzaile bereziak direla betaurreko horiek.
- b. Epai horren arabera, Zuzentarau horren 9.3 artikulua honela interpretatu behar da:
 - Xedapen horretan aurreikusten diren «gailu zuzentzaile BEREZIAK» honako BETAURREKO GRADUATU hauek dira: espezifikoki balio dutenak bistaratze-pantaila batez hornitutako ekipamendu baten bidez egindako lan bati lotuta dauden ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko eta prebenitzeko.
 - Bestalde, «gailu zuzentzaile BEREZI» horiek ez dira soilik lanbide-eremuan erabiltzen diren gailuetara mugatzen.
 - Enpresaburuak eraginpeko langileei gailu zuzentzaile berezi bat emateko betebeharra bete daiteke, bai enpresaburuak gailu hori zuzenean entregatuz, bai langileak egin behar izan dituen gastuak ordainduz, baina ez langileari soldata-osagarri orokor bat ordainduz.
- c. Epaiaren arrazoibideen arabera:
 - Beharrezkoa da langileak, normalean eta bere lan arruntaren zati handi batean, bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduak erabiltzea, Zuzentarauak berak zehaztutako baldintzetan eta salbuespenekin.
 - Ikusmen-nahasmenduak izatea, Zuzentarauaren 9.1 artikuluan aurreikusitako edozein azterketa medikotik diagnostikatuak (baita «bistaratze-pantaila fisiko batekin lanean hasi aurretik egiten diren azterketetan ere»).
 - Ez da eskatzen nahasmendu horien jatorria bistaratze-pantailarekin egindako lanak izatea, eta, beraz, lanarekiko loturak ez du zertan kausalitatezkoa izan.
 - Baina beti eskatuko da lotura bat egotea nahasmendu horien eta bistaratze-pantailarekin egiten diren lanen artean, bi zentzutan; izan ere: (i) nahasmendu horiek bistaratze-pantailarekin lan egiteko garrantzitsuak izan behar dute, eta (ii) gailu zuzentzaile arruntekin zuzendu ezin badira, gailu zuzentzaile bereziek, espezifikoki, langilearen lanarekin lotutako ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko izan behar dute beharrezkoak, eta ez ikusmen orokorreko arazoak zuzentzeko.
- d. Nolanahi ere, jurisdikzio-organo nazionalari dagokio (edo eskaerari buruz erabaki behar duen agenteari/enpresari) kasuaren funtsezko egitate zehatzak egiaztatzea, eta, bereziki, funtsezko baldintza hau: ea betaurreko graduatuek (zeinen zenbatekoa erreklamatzeko baita) benetan balio duten bistaratze-pantailarekin lotutako ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko, eta ez arazo orokorrak zuzentzeko, lan-baldintzekin nahitaez zerikusirik ez dutenak.

- e. Horregatik, iruzkindutako Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak zalantzak argitzen eta definizio jakin batzuk zehazten baditu ere, ezin da ondorioztatu enplegatzaileak, oro har, ikusmen-nahasmenduen edozein kasutan gailu zuzentzaileak hornitu behar dituenik, bistaratze-pantailekin lan egite hutsagatik¹.
- f. Beraz, kasu bakoitza aztertu beharko da, bakoitzaren inguruabarren arabera, eta, azken batean, aurretik analizatutako apartatuetan adierazi diren ezaugarri guztiak betetzen diren ala ez egiaztatzearen arabera. Alderdi horretarako erabakigarria izango da azterketa mediko optiko/optometrikoaren ondoriozko judizio diagnostikoa eta adierazpena.

Hau da, ezinbestekoa izango da kasu zehatz bakoitzean gertatzen diren egitateak analizatzea, eta, bereziki, badirudi funtsezkoak izango direla kasuan kasuko ondorio diagnostikoaren eta preskripzio mediku oftalmologiko/optometriko xehatuaren ondorioak, zehaztasunez mugatzeko 90/270 Zuzentarauaren 9. artikuluan eta 488/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako azterketa medikoan diagnostikatutako ikusmen-nahasmenduaren izaera. Hori jakinda, zehaztu ahal izango da nola eragiten duen nahasmendu horrek bistaratze-pantailekin langileak egiten duen lan profesionalean, eta zein den nahasmendu hori zuzentzeko –zehazki eta espezifiki, lanaren garapenari dagokionez– behar den eta egokia den gailu zuzentzaile berezia (betiere, osasuna zaintzeko azterketa mediko horren emaitzak gailu horren beharra erakusten badu eta gailu zuzentzaile arruntik erabili ezin bada).

Hori guztia beharrezkoa da kasu zehatz bakoitzean analizatzeko ea enpresaburuak gailu zuzentzaile berezi bat eman behar dien ukitutako langileei, zuzenean entregatuz edo langileak egin behar izan dituen gastuak ordainduz.

1. **EPAIA ERAGIN DUTEN EGITATEAK ETA AUZIA. ARAZO PREJUDIZIALA.**

Aipatutako 2022/12/22ko EBJAren epaia Errumaniako *Curtea de Apel Cluj*-ek (Clujeko Auzitegi Nagusia) EBFTren (EBren Funtzionamendu Tratatu) 267. artikulua arabera planteatutako erabaki prejudizialerako eskaeraren baten harira eman zen.

Jatorrizko auzia (auzi nagusia) hasi zen Errumaniako Immigrazio Ikuskaritza Nagusiaren (aurrerantzean, Ikuskaritza Nagusia; demandatzailearen erakunde publiko enplegatzailea) eta haren langileetako baten artean, enplegatzaile horrek ez zuelako onartu BETAURREKOAK EROSTEARI LOTUTAKO GASTUAK ITZULTZEKO ESKAERA, langileak aurkeztua.

Testuinguru horretan, erabaki prejudizialerako eskaeraren xedea zen **Kontseiluaren 1990eko maiatzaren 29ko 90/270/EEE Zuzentarauaren** –aurrerantzean, Zuzentzara– 9. artikulua interpretatzea –**bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin lan egiteari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa** (89/391/EEE Zuzentarauaren 16. artikulua) 1. apartatuaren araberrako bosgarren zuzentzara espezifiko)–. Zuzentarauaren 9. artikulua, «Langileen begien eta ikusmenaren babesa» izenekoak, hau dio:

«1. Langileek begien eta ikusmenaren azterketa egokia izango dute, beharrezkoa den gaitasuna duen pertsona batek egina, bistaratze-pantaila batekin lanean hasi aurretik,

-

¹ Epai horretatik ezin da ondorioztatu, ezta ere, planteatutako kasu zehatzean (arazo prejudiziala planteatu duen Errumaniako justizia-azuzitegiak zuzenean ebatzi beharrezkoa), azkenean, betebeharrak hori aitortuko denik. Izan ere, nahiz eta bere erabakian EBJAren interpretazio-jarraitibideak kontuan hartu behar izan, Errumaniako auzitegi horrek hartu beharko du auzi nagusiaren esparruan dagokion erabakia –kasuaren egitate zehatzak analizatuz–, EBJAk ez baitu horien gaineko erabakirik hartzen eta ezin baitu hartu (hala ere, egia esan, abokatu nagusiak adierazi du erantzunak kasu honetan baieztetza izan behar duela).

- aldizka gero, eta
- bistaratze-pantaila batekin lan egitearen ondorio izan litezkeen ikusmen-nahasmenduak agertzen direnean.

2. 1. apartatuan aipatutako azterketaren emaitzek hala eskatzen dutenean, langileek azterketa oftalmologikoa izango dute.

3. Langileei kasuan kasuko lanerako gailu zuzentzaile bereziak eman beharko zaizkie, baldin eta 1. apartatuan aipatzen den azterketa medikoaren edo 2. apartatuan aipatzen denaren emaitzek frogatzen badute beharrezkoak direla eta ezin direla gailu zuzentzaile arruntak erabili.

4. Artikulu hau aplikatuz hartzen diren neurriek ez dute inola ere ekarriko karga finantzario gehigarririk langileentzat.

5. Langileen begiak eta ikusmena babestea osasun-sistema nazional baten parte izan daiteke.»

Kasu honetan, gai zehatz honetan, Zuzentarauaren 9. artikulua hitzez hitzeko edukia **Errumaniako Gobernuaren 2006ko abuztuaren 9ko 1028/2006 Dekretuaren** 12. artikulutik 16. artikulura bitartekoek berresaten dute (oso-osorik eta modu berean). Dekretu horren bidez, **bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduen erabilerari buruzko laneko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dira.**

Beraz, arauak idaztean ez dago inolako kontraesanik. Zuzentarauaren 9. artikulua interpretazioan datza kontua.

Auzi nagusiaren inguruabarrak honako hauek ziren:

Langileak (epaian modu anonimoan TJ gisa identifikatua), zeina Ikuskaritza Nagusia enplegatuta baitzegoen eta bere jardueran bistaratze-pantailak zituzten ekipamenduekin lan egiten baitzuen, adierazi zuen pantailaren aurreko lan horrek eta beste arrisku-faktore batzuek (hala nola «argi ez-jarraitua, argi falta eta gainkarga neuropsikikoa») ikusmena nabarmen hondatu ziotela, eta, mediku espezialista baten gomendioz, betaurreko graduatuak aldatu behar izan zituela ikusmen-zolitasunaren murrizketa zuzentzeko. (Auzitegiko abokatu nagusiak bere txostenean adierazitakoaren arabera, betaurreko graduatuak aldatzeak kasu honetan esan nahi zuen demandatzaileak auzi nagusia erabiltzen zituen betaurreko graduatuak jada ez zirela egokiak haren ikusmena zuzentzeko, bereziki kontuan hartuta hipermetropia eta presbisia zituela, eta horrek zaildu egiten ziola bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin lan egitea).

Errumaniako Osasun Sistema Nazionalak ez zuenez aurreikusten betaurreko graduatu horien kostua ordaintzea (lenteak, eustoina eta eskulana), erakunde enplegatzaileari –hau da, Ikuskaritza Nagusiari– eskatu zion kostu horren zenbatekoa itzultzeko. Erakunde enplegatzaileak ukatu egin zion, eta Clujko Barruti Auzitegiak berretsi egin zuen ukapen hori, iritzita Errumaniako Gobernuaren 1028/2006 Dekretuaren 14. artikulua, gorago aipatuak, «ez zuela ezartzen gailu zuzentzaile berezien kostuak itzultzeko eskubidea, baizik eta, soilik, gailu horiek lortzeko eskubidea baldin eta horien beharra sortzen bazen». Langileak kasazio-errekurtsoa jarri zuen Clujko Auzitegi Nagusia, epaia baliogabetzeko eta auzia sakonki berriz aztertzeko eskatuz. Aipatutako hori izan da, azkenean, arazo prejudiziala EBJAra igorri duen Errumaniako jurisdikzio-organoa².

² Txostenaren egilearen oharra: EBJAren epaian transkribatutako zatiez gain, ezin izan dugu ikusi Clujko Barruti Auzitegiaren hasierako epaia, eta, beraz, ezin izan ditugu epaiaren termino osoak egiaztatu, ezta auzian biltzen diren egitateen zerrenda osoa ere, eta, hala, jatorrizko auziaren testuinguru zehatza ere ezin izan dugu zehaztu.

Nolanahi ere, Auzitegi Nagusiaren iritziz, auziari buruzko erabaki bat hartzeko, **Zuzentarauaren 9.3 artikulua jaso arren definitzen ez duen gailu zuzentzaile berezien kontzeptua interpretatu** behar zen. Auzitegi horren interpretazioaren arabera, kontzeptu horretan betaurreko graduatuak sartzen dira «*lan-baldintzen ondorioz ikusmena narriatuta duten langileentzat beharrezkoak diren heinean*».

Gainera, beste arazo batzuk ere planteatu zituen, jarraian ikusiko dugun bezala.

Nahiz eta Ikuskaritza Nagusia saiatu zen arazoetako batzuk ez zitezen onartu, azkenean EBJAk onartu egin zituen Errumaniako Auzitegiak planteatutako gai guztiak.

Laburbilduz, Clujko Auzitegi Nagusiak planteatutako arazo prejudizialak honako hauek izan ziren:

«1) [90/70 Zuzentarauaren] 9. artikuluan agertzen den "gailu zuzentzaile berezia" esamoldeak ez dituela graduatutako betaurrekoak barne hartzen interpretatu behar la da?

2) [90/270 Zuzentarauaren (LCEur 1990, 605, 2630)] 9. artikuluan agertzen den "gailu zuzentzaile berezia" esamoldea eskusiboki lantokian edo lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko erabiltzen den gailu bati buruzkoa dela ulertu behar al da?

3) [Bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduei buruzko Zuzentarauaren] 9. artikuluan ezarritako gailu zuzentzaile berezi batez hornitzeko betebeharraren zentzua soilik enpresaburuak gailua erosteari buruzkoa dela ulertu behar al da, edo betebeharr hori zentzu zabalean interpretatu behar al da, hau da, gailu hori erosteagatik langileak ordaindu beharreko gastuak enpresaburuak bere gain hartzen dituelako kasua ere kontuan hartzen den moduan?

4) [90/270 Zuzentarauaren] 9. artikuluekin bateragarria al da enpresaburuak gastu horiek ordaintzea, ordainsariaren igoera orokor gisa, eta "nekegarritasun-osagarri" gisa modu iraunkorrean ordaintzea?»

2. EBJAK ARAZO PRE-JUDIZIALEI EMANDAKO FRANTZUNAK

EBJAK lehenengo bi auziak aztertu zituen, kontuan hartuta, Zuzentarauaren 9.3 artikulua edukia ez ezik, arau horrek **lortu nahi dituen testuingurua eta helburuak** ere. Horri dagokionez, azpimarratu zuen zuzentzari horren jatorria dela langileen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea, eta, zehazki, arazo horri buruzko gutxieneko xedapen batzuk ezartzea, nahitaez bete beharrekoak, bistaratze-pantailaren erabilera eskatzen duten lanei dagokienez.

Zehazki, dio 90/270 Zuzentarauaren 9. artikulua helburua zehazten duela langileen begiak eta ikusmena babesteko aginduari dagokionez, eta bereziki zehazten duela langileek lanerako gailu zuzentzaile bereziak eman dakizkien duten eskubidea baldin eta artikulua horretan bertan aurreikusitako azterketen **emaitzek frogatzen badute gailu horiek beharrezkoak direla**.

³ 89/391 Zuzentarauaren arabera (langileen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa) gauzatu zen 90/270 Zuzentzari, eta, lehenengo hori, era berean, EETren 118.A artikuluan oinarrituta (egungo EBFTren 153. artikulua; X. tituluan –Gizarte Politika– txertatua dago eta zenbait neurri ezartzen ditu, besteak beste, bizi-baldintzak hobetzeko helburuak lortzeko –EBFTren 151. artikuluan (lehenengo EETren 136. artikulua) aurreikusitakoak–).

90/270 Zuzentzariaren xedea dira bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin lan egiteari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak (ikus xedapenen izenburua eta 1. artikulua).

90/270 Zuzentzariak laugarren Kontuan Hartutakoak adierazten du nahitaezkoa dela, bistaratze-pantaila batez hornitutako lanpostuetako langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, segurtasun-maila handiagoa ziurtatzeko helburua duten gutxieneko xedapenak betetzea.

90/270 Zuzentzariaren 9. artikulua helburua zehazten du langileen begiak eta ikusmena babesteko aginduari dagokionez, eta bereziki zehazten du langileek lanerako gailu zuzentzaile bereziak eman dakizkien duten eskubidea, baldin eta artikulua horretan bertan aurreikusitako azterketen emaitzek frogatzen badute gailu horiek beharrezkoak direla.

9. artikulua 3. apartatuak bereizi egiten ditu gailu zuzentzaile arruntak eta «gailu zuzentzaile bereziak, kasuan kasuko lanerako direnak».

Alderdi horiek kontuan hartuta, lehenengo bi arazoei erantzun die, eta, 90/270 Zuzentzarauaren 9. artikulua ondo irakurrita, honako definizio hauek ezarri ditu:

- “GAILU ZUZENTZAILEAK”: betaurrekoen gain, ikusmen-nahasmenduak zuzendu edo prebenitu ditzaketen beste gailu batzuei buruzkoa ere bada (adibidez, abokatu nagusiak dioten bezala, pantailako argi urdineko iragazkiak).
- “Gailu zuzentzaile ARRUNTAK”: Oro har, honako ezaugarri hauek dituztenak dira:
 - Horien bidez ezin dira zuzendu Zuzentzarauaren 9. artikuluan aurreikusitako azterketetan diagnostikatzen diren ikusmen-nahasmenduak
 - Lanetik kanpo eramaten direnak dira
 - Ez dute zertan lan-baldintzekin zerikusirik izan
 - Ez dute balio lanarekin lotutako ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko
 - Baliteke lotura espezifikorik ez izatea bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin

Garrantzitsua da gailu zuzentzaile arruntaren definizio hori abokatu nagusiaren gogoetekin osatzea. Izan ere, hark 2022-07-14ko ondorioetan adierazten duenez⁴, adibidez, gailu zuzentzaile arruntaren kategorian sartuko litzateke betaurrekoak daramatzan eta haurtzarotik miopia duen pertsona baten urteroko lente-aldaketa; era berean, mediku batek edo optometrista batek agindutako lente batzuk, ikusmen orokorreko arazoak edo nahasmenduak zuzentzeko direnak baina bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin lan egiteko egokiak, nahiz eta jarduera horretarako agindutakoak izan ez, gailu zuzentzaile arrunt moduan hartuko lirateke. Abokatu nagusiak dio ezen, kontrara, «ordenagailurako betaurreko» deiturikoak, bereziki bistaratze-pantailarekin lan egiteko agintzen direnak, gailu zuzentzaile berezizat hartuko liratekeela.

- “Gailu zuzentzaile BEREZIAK”
 - Nahitaez, balio behar dute honako hauek **zuzentzeko** (*alde horretatik, EBJAren 2002/10/24ko epaia aipatzen du, gailu zuzentzaile berezi horiek lehenetik zeuden kalteak zuzentzeari dagozkioa baitio, eta, horrela, NBEetatik bereizten baititu*) **edo prebenitzeko**: Zuzentzarauaren 9. artikuluan aurreikusten diren azterketetan diagnostikatutako ikusmen-nahasmenduak, bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin egindako lanarekin **lotura dutenak**.
 - Gailu zuzentzaile arrunt batek ezin izatea nahasmendu horiek zuzendu edo prebenitu. Hau da, abokatu nagusiak adierazten duen moduan, gailu zuzentzaile bat BEREZITZAT hartu ahal izateko, gailu arrunt batek egunerokoan konponduko lukeena baino harago joan behar du, beharbada arreta berezia jarritz lan hori mugatzen duten ikusmen-nahasmenduak konpontzeari.
 - Bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin lan egiteko gailu egokiak izatea, nahiz eta horrek ez duen esan nahi soilik lantokian edo zeregin profesionalak betetzeko erabili behar direnik.

Laburbilduz, langileei gailu zuzentzaile bereziak hornitzea nahitaezkoa izateko aukera egon dadin, EBJAK irizten dio:

⁴ https://curia.europa.eu/juris/document/document_print.jsf?docid=262973&doclang=ES

1. **Bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin lan** egitea beharrezkoa da, Zuzentarauak berak 1. eta 25. artikuluetan zehazten dituen baldintzetan eta salbuespenekin.
2. **Zuzentarauaren 9. artikuluan aurreikusitako azterketetan diagnostikatutako ikusmen-nahasmenduak** izatea beharrezkoa da. Horietako edozeinetan, baita «*bistaratze-pantaila batekin lan egiten hasi aurretik*» egindako azterketen kasuan ere (azken hori da abokatu nagusiak adierazitako eta epaiak erabilitako argudioetako bat ulertzeko ez dela nahitaez kausazko lotura bat egon behar izan daitezkeen ikusmen-nahasmenduen eta bistaratze-pantailarekin egindako lanaren artean).
3. Gailu zuzentzaile berezi horiek **lehendik zeuden kalteak zuzentzeari** dagozkio, eta, horrela, NBEetatik bereizten dira.
4. **Aldi batera uzten da nahasmendu horien eta bistaratze-pantailarekin lan egitearen arteko kausazko loturaren beharra** (horrela, bada, 41.etik 43.era bitarteko paragrafoetan, epaiak ezartzen du ezin dela interpretatu 9. artikulua kausazko lotura eskatzen duenik bistaratze-pantailarekin lan egitearen eta ikusmen-nahasmenduak agertzearen artean. Hau da, langileak gailu zuzentzaile berezi bat lortzeko eskubidea izatea –aipatutako 9. artikulua arabera– eragiten duten ikusmen-nahasmenduek ez dute zertan izan bistaratze-pantailarekin lan egiteak eragindakoak).
5. Nahasmendu horien eta bistaratze-pantailarekin lan egitearen artean nahitaez egon behar duen harremana ez da kausalitatezkoa. Aitzitik, **nahasmendu horiek bistaratze-pantailarekin lan egitekoan duten garrantziari buruzkoa da lotura hori.**
6. **Gailu zuzentzaile ARRUNT batek ezin izatea zuzendu edo prebenitu kasuan kasuko nahasmenduak.**
7. Beraz, **bistaratze-pantailarekin egiten den lanarekin zerikusia duten ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko erabiltzeko balio behar dute, espezifikoki, gailu zuzentzaile BEREZIEK, eta ez ikusmen-arazo orokorrak, lan-baldintzekin nahitaezko zerikusia ez dutenak.** Horrek ez du esan nahi, ordea, soilik lantokian erabili beharra dagoenik, edo zeregin profesionalak betetzeko.

§ 1. artikulua. Xedea

1. Zuzentarau honek, zeina 89/391/EEE Zuzentarauaren (LCEur 1989, 854) 16. artikulua 1. apartatuaren arabera bosgarren zuzentarau espezifiko baten, segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen ditu definitutako bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduekin –2. artikuluan definituen artekoak– lan egiteari dagokionez.

2. 89/391/EEE Zuzentarauko (LCEur 1989, 854) xedapenak erabat aplikatuko zaizkio 1. apartatuan jasotzen den esparru osoari, ezertan eragotzi gabe zuzentarau horretan jasotzen diren xedapen murriztaileagoak eta/edo espezifikoagoak.

3. Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko honako hauei:

- a) **ibilgailuak edo makinak gidatzeko postuak;**
- b) garraiobide batean **ontziratutako sistema informatikoak;**
- c) **batez ere publikoak erabiltzeko diren sistema informatikoak;**
- d) «**eramangarriak**» izeneko sistemak, baldin eta lanpostu batean modu jarraituan erabiltzen ez badira;
- e) **kalkulagailuak, kutxa erregistratzaileak eta datuak edo neurriak bistaratzeko gailu txiki bat** –ekipamendu horiek zuzenean erabiltzeko beharrezkoak direnak– **duten ekipamenduak;**
- f) **diseinu klasikoko idazmakinak**, «leihatilako makinak» izenekoak.

2. artikulua. Definizioak

Zuzentarau honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) **bistaratze-pantaila:** pantaila alfanumeriko edo grafiko bat, erabilitako irudikapen bisualeko metodoa edozein dela ere;
- b) **lanpostua:** bistaratze-pantaila duen ekipamendu batek osatzen duen multzoa gehi hurbileko lan-ingurunea, kasua bada honako hauek ere badituena: teklatura edo datuak eskuratzeko gailua, eta/edo gizakia/makina konexioa bermatuko duen programa; aukerako osagarriak; eranskinak, diskete-unitatea barne; telefonoa; modema; inprimagailua; dokumentu-euskarria; aulkia eta lanerako mahai edo gainazal bat;
- c) **langilea:** 89/391/EEE Zuzentarauaren 3. artikuluko a) letraren arabera, edozein langile, normalean eta bere ohiko lanaren zati nagusian bistaratze-pantaila duen ekipamendua erabiltzen duena.

Horregatik guztiagatik, epaiaren erantzuna hau da:

- **Lehenengo bi arazo prejudizialei:** 90/270 Zuzentarauaren 9. artikuluko 3. apartatuaren interpretazioa da xedapen horretan aurreikusitako «gailu zuzentzaile BEREZIAK» BETAURREKO GRADUATUAK direla, espezifikoki balio dutenak bistaratze-pantaila batez hornitutako ekipamendu baten bidez egindako lan bati lotuta dauden ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko eta prebenitzeko. Bestalde, «gailu zuzentzaile BEREZI» horiek ez dira mugatzen lanbide-eremuan soilik erabiltzen diren gailuetara.
- **Beste bi arazoei dagokienez,** epaiak ondorioztatzen du 9. artikuluko 3. eta 4. apartatuak honela interpretatu behar direla: enpresaburuaren betebeharra dela gailu zuzentzaile berezi batez hornitzea ukitutako langileak, eta hori bete daitekeela enpresaburuak gailu hori zuzenean emanaz, edo langileak egin behar izan dituen gastuak ordainduz, baina ez langileari soldata-osagarri orokor bat ordainduz.

Horregatik, epaiaren arrazoibideen arabera:

- Beharrezkoa da langileak, normalean eta bere lan arruntaren zati garrantzitsu batean, bistaratze-pantailaz hornitutako ekipamenduak erabiltzea, Zuzentarauak berak zehazten dituen baldintzetan eta salbuespenekin, eta beharrezkoa da Zuzentarauaren 9.1 artikuluan aurreikusitako edozein azterketatan diagnostikatutako ikusmen-nahasmenduak izatea (baita azterketa «bistaratzeko-pantaila baten bidez lanean hasi aurretik egiten denean ere»).
- Nahasmendu horien jatorria bistaratze-pantailen bidezko lanak izatea eskatzen ez bada ere – eta horrelakoetan, beraz, lanarekin duten lotura ez da nahitaez kausalitatezkoa izango–, beti eskatuko da erlazio bat egotea nahasmendu horien eta bistaratze-pantailarekin egiten diren lanen artean, zentzu bikoitzean. Izan ere, nahasmendu horiek garrantzia izan behar dute, hain zuzen ere, bistaratze-pantailen bidez lan egiterakoan, eta, gailu zuzentzaile arruntekin zuzendu ezin badira, gailu zuzentzaile bereziek beharrezkoak izan behar dute, espezifikoki, lanarekin lotutako ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko, eta ez ikusmen-arazo orokorrak zuzentzeko.

Adierazi den bezala, eta Europako Auzitegiak bere epaian gogorarazi duenez, hark aipatutako interpretazioa ezarri ondoren, jurisdikzio-organoari dagokio (kasu honetan Errumaniakoari) prozedura nagusiaren funtsezko egitate zehatzak egiaztatzea, eta, bereziki, funtsezko baldintza hau: zenbatekoaren erreklamazio-gai diren betaurreko graduatuek benetan balio ote duten bistaratze-pantailarekin lotutako ikusmen-nahasmenduak zuzentzeko, eta ez lan-baldintzekin nahitaezko zerikusia ez duten arazo orokorrak zuzentzeko⁶.

3. EPAIAREN IKUSPENA ETA APLIKAZIOA ESPAINIAKO ZUZENBIDEAN

Lehenik eta behin, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak auzi prejudizialei buruz duten *jurisprudentzia-balioa* aztertuko dugu.

⁶ Txostenaren egilearen oharra: Txosten hau egin dugun egunean ez dakigu, prozedura nagusiaren epaia eman bada, zein izan den Clujko (Errumania) Auzitegi Nagusiaren epaia.

Europar Batasunaren Tratatuaren (aurrerantzean, EBT) 19.3.b) artikulua eta **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren** (aurrerantzean, EBFT) 267. artikulua arabera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (aurrerantzean, EBJA) eskumena du, estatu kide bateko organo jurisdikzional batek eskatuta, Batasuneko Zuzenbidearen interpretazioari buruzko izaera prejudizialeko epaia emateko.

Funtsean, kasu horietan, arazo prejudizialak epaile nazionalaren zalantza baten ondorio izaten dira; hain zuzen, Europar Batasunaren xedapen bati –Zuzentarau bat, kasurako– eman beharreko interpretazioari buruzko zalantza. Zalantza hori sortzen da aztertzen ari den prozedura batean zeinean jokoan sartzen baita, epaia emateko orduan erabakigarria den modu batean, Batasunaren ordenamendua. Garrantzitsua da azpimarratzea Batasunaren Zuzenbidea interpretatzean datzala, beraz, EBJAren eginkizuna prozedura prejudizialaren esparruan, eta ez zuzenbide hori prozedura nagusiaren egitate zehatzei aplikatzean. Hain zuzen, funtzio horren ardura arazo prejudiziala igortzen duen organo jurisdikzional nazionalak du.

Beraz, EBJAri ez dagokio auzi nagusiaren esparruan sortzen diren egitatezko arazoei buruzko iritzirik ematea.

Illo horretan, adierazi behar da, **jurisdikzio-organismo nazionalei arazo prejudizialak planteatzeari dagokionez Justizia Auzitegiak** 2012ko abenduaren 6an **emandako lehenengo gomendioaren arabera**, «*Europar Batasuneko Zuzenbidearen funtsezko mekanismoa dela igorpen prejudiziala, helburu hau duena: estatu kideetako jurisdikzio-organismo bitartekoak ematea zuzenbide horren interpretazioa eta aplikazioa Batasunean zehar berdinak izan daitezen*».

Horrela, bada, arazo prejudizial horiei ematen zaien helburua kontuan hartuta, ondorioztatu behar da EBJA horiekin egiten duen interpretazio-lanak berak autoritatea bereganatzen duela: arauak sortzeko tresna bihurtzen da, interpretazio-arauak interpretatutako xedapenen zentzuari atxikitzen zaizkion neurrian.

Hain zuzen, gerta daitekeen arren organo jurisdikzional igorleak berak edo beste organo jurisdikzional nazional batzuek, iruditzen bazaie emandako erabakiak ez duela informazio nahikorik ematen, Auzitegiari beste erabaki prejudizial bat eskatzea (Justizia Auzitegiaren 2012ko irailaren 25eko **Prozedura Erregelamenduari** 104.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituta), inongo epaile nazionalak ezin du zalantzan jarri interpretazio-epai baten baliozkotasuna.

Azken batean, Europar Batasuneko epaileak egiten duen interpretaziotik ondorioztatzen diren printzipio eta arau orokorrek lotetsi egiten dute kontsulta planteatu zuen organo judizial nazionala, eta, gainera, erga omnes ondorioak dituzte –gainerako jurisdikzio-organismo nazionalak errespetatu beharko dituztenak eta interpretatutako xedapena aplikatu behar zaion beste edozein kasuri eragingo diotenak–.

Logikoa denez, ondorio horiek beste kasu batzuetara hedatzea errazagoa izango da Europako epaileak interpretazio-jarraibide orokor irmoak ematen dituenean, eta, hedapen horrek, praktikan, zailtasun handiagoa izango du EBJAren jurisprudentziatik ondorioztatzen diren interpretazio-irizpideak igorpen-kasu jakin horren inguruabarrei oso estu lotzen zaizkienean edo oso interpretazio-tarte irekia uzten dutenean epaile nazionalen alde. Nolanahi ere, aipatu berri ditugun inguruabarrak kontuan hartuta ere, aipatutako interpretazio-epai prejudizialek erga omnes ondorioak dituzte, lehen adierazi dugun bezala. Illo horretatik jo du Espainiako Auzitegi Gorenak (Arlo Zibileko Sala, Osoko Bilkura) otsailaren 24ko 123/2017 Epaia bosgarren zuzenbide-oinarrian (kasazio-errekurtsoaren zk.: 740/2014):

«Igorpen prejudizialeko prozeduraren oinarria lankidetza bat da, berekin dakarrena eginkizunak banatzea epaile nazionalaren –Batasunaren zuzenbidea auzi jakin batean aplikatzeko eskumena duena– eta Justizia Auzitegiaren artean –zeinari baitagokio berraztertzea Batasunaren zuzenbidea berdin interpretatzen dela estatu kide guztietan (EEJA, 1981eko abenduaren 16koa, Foglia/Novello, C-244/1980)–.

Gainera, epai prejudizialak nahitaezkoak dira (Justizia Auzitegiaren Prozedura Erregelamenduaren 91. artikulua, 2012ko irailaren 25eko bertsio bateratua). **Erga omnes indar behartzaile bat direnez, lotesleak dira, ez bakarrik epaile igorlearentzat, baita antzeko kasu batez arduratzen den edozein jurisdikzio nazionalentzat ere, interpretatzen den Batasunaren araua aplikatzea planteatzen duenean edo arau horren baliogabetasuna deklaratzeko badu. Horrek ez du ukatzen, EBko estatu kideen ordenamendu nazionalen, jurisdikzio horren erabakiak errekurritu ahal izatea».**

Hori esanda, iruzkindutako epaia gure zuzenbidean aplika daitekeen aztertu baino lehen, esan behar dugu **apirilaren 4ko 488/1997 Errege Dekretuaren bidez** 90/270 Zuzentarauaren edukiaren transposizioa egin zela Espainiako zuzenbidera. Zehazki, zuzentarau horren 9. artikulua edukia funtsean berdin-berdin jasotzen da 488/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluan, jarraian transkribatuko dugun testuan argi ageri den moduan:

4. artikulua. Osasunaren zaintza

1. Enpresaburuak langileen osasuna behar bezala zaintzeko eskubidea bermatuko du, bereziki kontuan hartuta ikusmenerako arriskuak eta arazo fisikoak eta lan-karga mentalekoak, haiekiko balizko ondorio erantsia edo konbinatua eta batera doan balizko patologia. Zaintza hori osasun-langile eskudunek egingo dute, egiten diren jarraibide eta protokoloetan osasun-agintariek zehazten dutenaren arabera, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 37. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren arabera. Zaintza hori honako kasu hauetan eskaini beharko zaie langileei:

- a) Bistaratze-pantaila batekin lanean hasi aurretik.
- b) Ondoren, mediku arduradunaren iritziz arrisku-mailari egokitutako aldizkakotasunarekin.
- c) Lan mota horren ondorio izan daitezkeen nahasmenduak agertzen direnean.

2. 1. apartatua aipatutako osasun-zaintzaren emaitzek hala eskatzen dutenean, langileek azterketa oftalmologikoa egiteko eskubidea izango dute.

3. Enpresaburuak doan emango dizkie langileei ikusmena babesteko gailu zuzentzaile bereziak, dagokion ekipamenduarekin lan egiteko egokiak, baldin eta aurreko apartatuetan aipatutako osasun-zaintzaren emaitzek haien beharra frogatzen badute eta gailu zuzentzaile arruntik erabili ezin bada.

Beraz, gure Zuzenbidean ere ez dago, gai zehatz honetan, Batasuneko Zuzenbidearekin kontraesanean dagoen estatuko araurik.

Laneko Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionalak (LSHIN; egungo Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionala), 488/1997 Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan aurreikusitakoaren arabera, gida tekniko bat egin zuen bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduak erabiltzearekin lotutako arriskuak ebaluatze eta prebenitzeko.⁷

Ahaztu gabe gida horren helburua dela errege-dekretu horren aplikazioa erraztea, bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduen erabilerarekin lotutako arriskuak ebaluatze eta prebenitzeko irizpideak eta informazio teknikoa emanez, kontua da, 2021eko ekainean eguneratutako idazkeran, gidak 15. orrialdean iruzkin bat egiten diola 488/1997 Errege Dekretuaren 4. artikulua 3. apartatuari, zeinak bertan jasotako kontzeptu batzuk garatzen baititu. Honela dio:

7

<https://www.insst.es/documents/94886/203536/Gu%C3%ADa+de+seguridad+de+trabajo+para+la+evaluaci%C3%B3n+y+prevenci%C3%B3n+de+los+riesgos+relativos+a+la+utilizaci%C3%B3n+de+equipos+con+pantallas+de+visualizaci%C3%B3n/53afc279-7923-4cdb-a644-f9424f13f578>

«Gailu zuzentzaile bereziak gailu espezifikoak dira (betaurrekoak, normalean), bistaratze-pantailak dituzten lanpostuetan behar den distantziara lan egiteko erabiltzen direnak, pantailekin lan egiten den denboran bakarrik erabili beharrekoak, eta ez beste inongo egoeratan.

Osasunaren zaintzaz arduratzen den medikua izango da langileari gailu zuzentzaile bereziak emateko beharra erabakiko duena, baldin eta langilearen gailu zuzentzaile arruntak lan-distantziara egokitzen ez badira, eta, horiek egokitzeko, lanpostuaren konfigurazioa aldatzerik ez badago.

Ez dira «gailu zuzentzaile berezizat» hartzen gailu arruntekin konpentsatzen diren patologietarako (miopia, astigmatismoa, presbizioa...) erabiltzen direnak: Hala ere, langileak gailu zuzentzaileak erabiltzea eskatzen duen patologiaen bat badu, garrantzitsua da gailu horiek behar bezala graduatuta egotea; bestela, buruko mina edo ikusmen-nekea ager daitezke. Islaren aurkako betaurrekoak eta antzeko sistemak ere ez dira gailu zuzentzaile berezizat hartu behar».

Beraz, ikus dezakegu ezen, LSHINen gida horretako gailu zuzentzaile berezien definizioa funtsean EBJAkoaren epaiak ezarritakoarekin bateragarria den arren, lehen paragrafoaren azken lerroetan baduela adierazpen bat epai horrek zehaztu egiten duena: Europako auzitegiaren ustez, gailu zuzentzaile berezi horiek ez dira soilik lanbide-eremuan erabiltzen diren gailuetara mugatzen.

Era berean, interesgarria da nabarmentzea gidan Osasunaren Zaintzako mediku arduradunari berariaz esleitzen zaion zeregina, ez soilik ikusmen-nahasmenduak egon daitezkeen baloratzeko, baita gailu zuzentzaile bereziak emateko beharra baloratzeko ere. Horretarako, gidaren testutik ondorioztatzen denez, eta 488/1997 Errege Dekretuak eta 90/270 Zuzentarauak ezarritakoaren ildotik, beharrezkoa da zuzentzaile arruntek balio dutelakoa baztertu izana (baita lanpostua egokitzeko neurri posibleak baztertu izana ere).

Horrela, aplikatu beharreko arau-esparrua gogorarazi ondoren, eta kontuan hartuta EBJAk emandako interpretazioa aintzat hartu beharko dela Espainiako enpresa batek edo jurisdikzio-organo batek Zuzentarauaren 9. artikuluan aurreikusitakoa aplikatu behar duen kasu berrietan –artikulu horretakoa, azken batean, 488/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen dena da, Zuzentarau horren edukia erreproduzitzen baitu funtsean–, aztertu beharrekoa da EBJAren interpretazio-jarraitzearen aplikazioak praktikan izango duen irismena.

Analisi hori egiteko, aipatutako 488/1997 Errege Dekretua indarrean sartu zenetik Espainian gai horri buruz eman den epai bakarra –erregutze-fasean emana– aztertuko dugu.

Horrela, Kanarietako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2008ko otsailaren 26ko Epaiak (Rec 1420/2005) langile bati (banketxe bateko administraria) UKATU egin zion erositako foku anitzeko betaurreko graduatuen kostua ordaintzea. Osasuna zaintzeko azterketa medikoan ikusmenean nahasmendu jakin batzuk antzeman ondoren erosi zituen betaurreko horiek; diagnostikoa oftalmologiako espezialistak osatu zuen. Lan Arloko Epaitegiak, langileari, erositako betaurrekoen zenbatekoa itzultzea ezetsi ondoren, Kanarietako Auzitegiak instantziako epaia berretsi zuen, iritzita ez zela egiaztatuta geratu demandatzaileak bistaratze-pantailekin egiten bide zuen lana zenik diagnostikatutako ikusmen-defizitaren arrazoia.

EBJAren interpretazio berria ikusita, gaur egun ezinezkoa izango litzateke Kanarietako epaiaren lehenengo argudio hori aplikatzea. Izan ere, definituta geratu da ez dela nahitaez beharrezkoa bistaratze-pantailekin egindako lanak eragindakoak izatea langileak gailu zuzentzaile berezi bat lortzeko eskubidea ekar dezaketen ikusmen-nahasmenduak.

Baina aurrekoa ezertan eragotzi gabe, Kanarietako Justizia Auzitegi Nagusiaren epai horrek beste alderdi batzuk aztertzen ditu, aipagai dugun kasu zehatzean 488/1997 Errege Dekretua (eta 90/270 Zuzentaraua) aplikatzeari dagokionez benetan garrantzitsuak direnak, hala nola zer denbora- eta erabilera-inguruabarretan egiten zuen lan langileak bistaratze-pantailak erabiliz, lanarekin inolako loturarik gabeko gaixotasun arruntak diagnostikatu izana oftalmologiako espezialistak, bai eta behar ziren betaurrekoak gailu zuzentzaile bereziak ote ziren ala ez ere. Epaiak ondorioztatzen du epaitutako kasuan ez dagoela gailu horietaz hornitzeko derrigortasunik, «gailu zuzentzaileak arruntak direnean, hala nola langileari gaixotasun arruntek eragindako ikusmen-defizitaren arabera errezetatutakoak». Hau da, Kanarietako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaian ere aztertzen ziren gainerako kontuak aztertzearen helburua egitatezko alderdi batzuk baloratzea eta egiaztatzea zen.

Alderdi horiei dagokienez (logikoa denez, desberdintasun nabarmenak izango dituzte kasu zehatz bakoitzean), iruzkindu den Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2022-12-22ko epaiak hau egin du: era zehatzagoan definitu ditu epaile nazionalak egiaztatu beharko dituen parametroak. Laburbilduz, langile bati graduatutako betaurrekoen kostua zein kasutan ordainduko litzaiokeen argitu ahal izateko, funtsezkoa izaten jarraituko du (Kanarietako epaiak ere egin zuen bezala), kasu zehatz bakoitzean honako baldintza hauek betetzen diren egiaztatzea:

- Langileak bistaratzeko-pantailarekin lan egitea (ohiko moduan eta bere lan normalaren zati nabarmen batean⁸, eta Zuzentzarauak berak ezarritako salbuespenekin⁹).
- 9. artikuluan aurreikusitako azterketetan ikusmen-nahasmenduak diagnostikatu izana, ikusmen-arazo orokorrak ez direnak, baizik eta bistaratzeko-pantailaren bidezko lanak garatzeko eragin zuzena dutenak.
- Zuzentzaile normal batek ez zuzendu ez prebenitu ezin dezakeen ikusmen-nahasmendua izatea.
- Gailu zuzentzaile bereziak beharrezkoak eta bereziki egokiak izatea langileak bistaratze-pantailarekin egiten duen lanarekin zerikusia duten ikusmen-nahasmendu horiek –ez lotura kausalaren zentzuan, baizik eta garapenean duten eraginaren zentzuan– zuzentzeko.

Bilbon, 2023ko otsailaren 1ean

Mutualia, Gizarte Segurantzaren Laguntzailea den 2
zenbakiko Mutualitatea, Gai Juridikoen Zuzendaritza

José Ángel Moral Sáez-Díez (letradua)

Kepa Bilbao Zubiaur (teknikari juridikoa)

⁸ Alderdi horretatik, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren aipatutako Gida Teknikoak adierazten du *zaila dela, eguneko edo asteko erabilera-ordu kopuru jakin batean soilik oinarrituta, kontzeptu hori mugatzen duen muga simple bat ezartzea. Hori dela eta, lan-baldintzekin lotutako faktoreen multzoa baloratu beharko da, bistaratze-pantailak dituzten ekipamendu horien erabiltzaile bat, 488/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren ondorioetarako, «langiletzat» har daitekeen erabakitzeke.*

⁹ Horri dagokionez, kontuan hartu behar da 2000ko uztailaren 6ko Epaian –Dietrich (C-11/99)–, EBJAk agerian uzten duela Batzordearen irizpidea: 90/270 Zuzentzarauaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen diren ekipamenduek –haien zerrenda zehatza 1. artikuluko 3. apartatuan ageri da– lotura dute pantailaren erabilera bigarren mailakoa edo iraupen laburrekoa den egoerekin. Aldiz, Zuzentzarauaren aplikazio-eremuaren barruan daude modu jarraituan pantailarekin egindako lan guztiak.